

**III. ATALA****EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA****Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio saila**

Agindua, 2020ko urriaren 14koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako Sailburuarena, hasierako onespena ematen diona Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketari.

1. Orduko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketaren espediente bidali dio sail honetako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzari, izapidetu dezan.
2. Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketa honen helburu nagusia da ontziak eraikitzeke portu-jarduerak aldatzea etxebizitzaren hiri-eremutik urrunago dauden portu-espazio berrietara, hain zuzen ere bizitegitarako hiri-lurzoruari eta Bermeoko hiri-lurzoruko biztanleei eragindako kalteak minimizatzeko. Horretarako, Bermeoko portuko Erroxape - Mundaka kaiko lur-azalera handitu behar da, ipar-ekialdeko muturrean, Xixili kaiari jarraipena emanez. Han, bi azpiero berri sortuko lirakeke, eta horietan industria- eta merkataritza-erabilerak kokatu ahal izango lirakeke, instalazioak, biltegiak eta bulegoak barnean direla. Ere berri horietan kokatuko lirakeke, halaber, lehen adierazitako ontzigitzako edo ontziak egin eta konpontzeko jarduerak.
3. Plan Berezia aldatzeko dokumentuarekin batera, generoaren araberrako inpaktu-txostena, eragin akustikoaren azterlana eta itsasertzeko dinamikaren azterlana bidali dira.
4. Era berean, ingurumen-azterketa estrategikoa igorri da, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2019ko maiatzaren 8ko Ebazpenaren bidez formulatutako irismen-dokumentuan adierazitakoaren arabera eginga.
5. Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak Euskal Herriko Itsasertz Demarkazioari hasierako onspenaren aurretik egindako txosten-eskaeraren kopia aurkeztu du. Hala ere, Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 117. artikulua aipatzen duen epea igarota, ez da txosten hori egin, eta, beraz, izapideekin jarraitu da, bestela erreferentzia-dokumentua irautsi liteke eta. Hala ere, aldaketa hau ez da inolara ere behin betiko onartuko, aurretik aintzat hartu gabe Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioen Kostaldeen eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena.
6. Prestatutako dokumentazio teknikoak plan berezi bat osatzeko behar diren baldintzak betetzen ditu, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluan xedatutakoaren arabera.
7. Plan bereziaren 3. aldaketa izapidetzeari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzari dagokio, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bidez, espediente honi hasierako onarpenera ematea, hala xedatuta baitago Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onesteko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 32.2 artikuluan.

Bada, aplikatu beharreko legedia kontuan hartuta, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: Hasierako onspena ematea Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketari.

Bigarrena: Agindu hau argitara ematea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Lurralde Historikoko tirada handieneko egunkarian edo egunkarietan.

Hirugarrena: Jendaurrean jartzea Plan Bereziaren aldaketa eta ingurumen-azterketa estrategikoa, 45 egun balioduneko epean, iragarkia aipatutako aldizkari ofizialean argi-



taratzen denetik hasita, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 31.5.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Laugarrena: Planaren aldaketari eta ingurumen-azterketa estrategikoari buruzko kontsulta-izapidea egitea eraginpeko administrazio publikoei eta, irismen-dokumentuaren arabera, aurretik kontsulta egin zaien pertsona interesdunei, epe berean, aipatutako martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 31.5.b) artikuluekin bat etorritz.

Bosgarrena: Epe horretan, aipatutako dokumentuak aztertu ahal izango dira, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren web-orrian eta Irekia komunikazio-kanalean: www.irekia.euskadi.eus. Betiere, alegazioak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzari zuzendu beharko zaizkio.

Erabaki honen aurka, ezin da errekurtsorik jarri, izapide-egintza bat baita, Bermeoko Portua Antolatze Plan Bereziaren 3. aldaketa behin betiko onartzeko prozeduran egina.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 14an.—Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua, Ignacio María Arriola López